# BESTELAKO XEDAPENAK

## HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 1453

*EBAZPENA, 2014ko martxoaren 17koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, estatu mailako gaitasuna duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Urola Erdiko mankomunitateko lanpostua sortzen eta sailkatzen duena.*

2013ko abenduaren 16an, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Orokorrak Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatu zion Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako Idazkari lanpostua sortzeko eta sailkatzeko.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen Zazpigarren xedapen iragankorrari jarraikiz, lege hori indarrean jarri –2013ko abenduaren 31– baino lehenago hasitako Estatuko gaikuntza duten funtzionarioei dagozkien administrazio-prozedurak izapidetzen jarraituko dira eta ebatziko dira hasi zirenean indarrean zeuden xedapenen arabera.

Hori horrela, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera (espedientea hasi zenean indarrean zegoena), autonomia-erkidegoetako bakoitzari dagokio Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak sortzeko, sailkatzeko edo kentzeko eskumena, betiere, legez ezarrita dauden oinarrizko irizpideei jarraituz.

Halaber, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen betetzeari buruzkoak, –indarrean dagoena, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren zazpigarren xedapen iragankorraren arabera– 2. artikuluan ezartzen ditu funtzionarioen lanpostu horiek sailkatzeko irizpideak. Aipatutako 2. artikuluak jasotzen du autonomia-erkidegoei dagokiela, beren lurralde-eremuaren baitan, Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioei gordetako lanpostuak sailkatzeko arauak eta irizpideak ezartzeko eskumena, betiere biztanleriaren eta Toki Erakundeetako aurrekontuen arabera.

Horrela, prozeduraren instrukzio-aldian, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zitzaion txostena eman zezala Mankomunitatearen eskaera zela eta; 2014ko martxoaren 10ean Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak eskatutako txostena jaso du. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik aldeko txostena ematen zaio Urola Erdiko Mankomunitateko Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua sortzeko eta sailkatzeko eskabideari.

Lanpostu horren sailkapenari dagokionez, Jurisprudentziak argitu du 1732/1994 Errege Dekretuaren 2. artikuluaren lanpostuak sailkatzeko biztanleei eta aurrekontuei buruzko baldintzen interpretazioa; hain zuzen, Zaragozako Administrazioarekiko Auzien 1. zenbakiko Auzitegiak 2002ko urriaren 4an hartutako epaiak, Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiak 2003ko ekainaren 9an berretsiak, argitu du. Epaiaren arabera, legelariak 2. artikulu hori oso-osorik aplikatu nahi izan balie 6. artikuluan aurreikusten diren entitateei (eskualdeei, metropolialdeei, mankomunitateei eta landa- eta hiri-komunitateei), besterik gabe, 2. artikuluan sartuko zituzkeen. Aipatutako jurisprudentziak, ordea, ulertu du horrelako entitateak sailkatu behar direla 2. artikuluko entitate motaren

batean, baina ez udalak sailkatzeko erabili diren irizpide berberei jarraiki, Udalak ez baitira Errege Dekretuaren 6. artikuluak aurreikusten dituen entitateen parekideak, eta, beraz, udaletan lanpostu horiek sailkatzeko balio duten irizpideek ez dute zertan balio izan beste erakundeetakoak sailkatzeko. Era berean, epaiak eransten du, udaletan ez bezala, erakunde horietan biztanleria ez dela osagai erabakigarria, baizik eta kudeatzen den aurrekontua eta beren gain hartzen dituzten eskumenak. Irizpide horiek Toki-Jaurbideari buruzko indarrean dauden lege xedapenak biltzen dituen Testu Bateratuak, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 159.1 artikuluan aurreikusten ditu.

Horregatik guztiagatik, Urola Erdiko Mankomunitateak aurkeztutako eskaera aztertu ondoren; Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko aldeko txostenarekin bat; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Bigarren Xedapen Osagarriari jarraituz; 1732/1994 Errege Dekretuaren 2. eta 9. artikuluekin bat etorriz; baita Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 10. artikuluaren arabera ere, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Urola Erdiko Mankomunitateko Idazkaritza lanpostua sortzea, eta hirugarren mailan sailkatzea. Lanpostua Idazkaritza-Kontuhartzailetza Azpieskalako Estatuko gaikuntza duten Toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta egongo da.

Bigarrena.– Urola Erdiko Mankomunitateak lanpostu hori bere lanpostu zerrendan gehitu beharko du lanpostua bete baino lehen.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideri, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal zaio Erakunde Harremanetarako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera, bat etorriz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin, eta uko egin barik errekurtsoa aurkezteko xedez zuzenbidean onartutako edozein bideri.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluari jarraituz, Herri Administrazioek ez dute ebazpen honen aurka administrazioarekiko errekurtsorik jartzerik izango. Hala ere, ebazpen hau errekurritu daiteke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean, 29/1998 Legearen 45. eta hurrengo artikuluen arabera. Halaber, aurretiaz eta epe berean, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatu ahalko diote ebazpen hori deuseztatu edo atzera bota dezala, 29/1998 Legearen 44.1 artikuluan ezartzen denaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 17a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.